

## TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 6. apartatuak ezartzen du ezen aipatutako alde aurreko kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Foru dekretuaren proiektu honen helburua da, alde batetik, Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko Erregelamendua aldatzea, Europar Batasuneko zuzenbidea barne-antolamenduan txertatzearen ondorioz zerga horren foru legean sartu diren aldaketetara egokitzeko asmoz, zehazki, honako hauen ondorioz: Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentaraua, zeinak aldatu baitzuten 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2009/132/EE Zuzentaraua, zerbitzu-prestaziorako eta ondasunen urrutiko salmentarako balio erantsiaren gaineko zergaren zenbait betebeharrak dagokienez; eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 21eko 2019/1995 (EB) Zuzentaraua, zeinak aldatu baitzuen 2006/112/EE Zuzentaraua, ondasunen urrutiko salmenten zenbait xedapenak eta ondasunen entrega nazional batzuei dagokienez.

Beste alde batetik, honako arau hauek aldatzen dira, zenbait eguneraketa egiteko asmoz: Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua; azaroaren 8ko 69/2010 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena arautzen duena; Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua; Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua; eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua.

Horri dagokionez, ulertu behar da ezen foru dekretu honen proiektua (zeinaren bidez honako arau hauek aldatzen baitira: Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua, apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia; azaroaren 8ko 69/2010 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena arautzen duena; Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua, abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsia; eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua, ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia) bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Legearen 133. artikulua 6. apartatuak dioenarekin, proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkie betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira.

Hori hala izanik ere, foru dekretuaren proiektua jendaurrean jarriko da eta Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko, baita Nafarroako Zerga Ogasunaren atarian ere.

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an.

*Elektronikoki sinatu du dokumentu hau Cristina Sarasa Villaverdek, Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariak.*

**Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua**